

ENPRESETAN PERTSONEN TALENTUA ETA IKASKUNTZA SUSTATZEKO PROGRAMA

XEDEA: Enpresetan pertsonen talentua eta gaitasunak sustatzea, eta enpresa, gizarte eta lurralde balio partekatuak sortzea.

ONURADUNAK:

Gipuzkoan dauden enpresak eta enpresa elkarteak, baita EAEn kokatutako enpresa elkarteak ere, Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzeko dituztenak.

Gipuzkoan dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko erakundeak.

Unibertsitatez kanpoko hezkuntza sistemako ikastetxeen sareko entitateak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren funts publikoen bidez finantzaturakoak eta entitate horien interesak ordezkatzeko dituzten taldeak eta elkarteak eta unibertsitateak. Entitateek Gipuzkoan eduki behar dute beren egoitza.

Gipuzkoako erakunde eta/edo elkarte estrategikoak, hezkuntza izaera, izaera ekonomiko-soziala eta tokiko eta/edo eskualdeko izaera dutelarik, zona bateko edo jarduera ekonomiko bateko agente egokiak edo funtsezkoak biltzen dituztenak, baldin eta horiek ikuspegi integrala garatze aldera elkarlanean aritzeko interesa badute eta ikuspegi integral hori garapen pertsonal, ekonomiko eta sozialaren aldeko konpromisoan oinarritzen bada.

PROIEKTU MOTAK:

Diruz lagunduko diren jarduketak honelakoak izango dira: enpresetan ezarpen prozesuak bultzatzen dituzten proiektuak, baita ikerketakoak eta arlo hauen garapenekoak ere: tresnak, metodologiak, lanabesak, ebaluazio sistemak, hedapena, sozializazioa eta balorizazioa, eta esperimentazioa.

Proiektuak, enpresaren eta lurraldearen ekosistema indartzera bideratuta egongo dira, erdigune gisa pertsona jarriko duten lan testuinguruaren diseinuaren eta garapenaren bidez; gaitasunak eta ahalmenak sustatuz, eta pertsonen eta enpresen ikaskuntzaren bidez; eta lurralde mailan heziketa, ekonomia eta gizarte eragileen arteko interakzioa indartuz, ondorengo kasuetan sartzen badira:

- Ahalmen giltzarrien, zeharkako eta etorkizuneko garapena sustatzeko mekanismoak sortzea pertsonentzat, enpresentzat eta lurraldearentzat, ikaskuntzaren bidez testuinguru egokiak sortuz, balio bereizgarria sortzeko aukera emanez (balio aniztasunak, gaitasun-mapak, talentu kritikoaren mapa, ezarri behar den talentu mota bakoitzeko estrategia...).
- Enpresetan ikaskuntzaren kultura bat eta ikasteko dinamikak garatzea (ikasteko ibilbideak ad hoc garatzea pertsona bakoitzaren arabera; auto-erabilera eta laguntza irudia bezalako tresnen bidez; ikaskuntza lantokian bultzatzea; ikasten duten erakundeak; ikasketak egiteko komunitateak; heziketa duala duten karrera planak...), nazioarteko esperientziak barne.

- Prozesuak garatzeko metodologiak eta pertsonen balioa emateko sistematikak esperimintatzea, enpresaren helburuekin eta estrategiekin eta pertsonen antolakuntzekin koherenteak direnak (balio mapak...).
- Estrategiak eta erakundeen eta enpresen esperimintazioa sustatzea, lan inguruneetan enpleguaren denbora banaketa eraldatzeko formula aurreratuak erabiliz.
- Sustatzea eta gizarteratzea: ahalmen giltzarriak eta zeharkakoak; ikasten ikasteko ahalmenak, eta ekimenaren zentzua; ikasteko aukerak eta trebetasun zientifiko-teknikoak eta sozialak, erronka berriei eta etorkizuneko itxaropenei erantzuten diotenak.
- Prozesu desberdinak ikertzea, ebaluatzea, balioztatzea eta gizartean hedatzea, gizarte eta lurralde balio partekatuak lortzeko; erdigune gisa pertsona duten erakunde harremanen modu berriak garatzea; lantoki eraldatzaileak; ikaskuntza prozesu garatuak, etorkizuneko lana eta lotutako ahalmenak.
- Heziketa espezializatu baten eskaintza berri bat sustatzea, zenbait arlo lehenesten dituen, hala nola fabrikazio aurreratuak, biozientziak-osasuna, energia eta gastronomia, enpresen eta lurraldearen etorkizuneko beharrei erantzuna emango diona.

LAGUNTZEN ZENBATEKOA:

Diru laguntzek ehuneko hauek izango dituzte: kostu hautagarrien % 100, honelako proiektuetan: ikerketakoak eta arlo hauen garapenekoak: tresnak, metodologiak, lanabesak, ebaluazio sistemak, hedapena, sozializazioa eta balorizazioa eta esperimintazioa; eta kostu hautagarrien % 75, berriz, enpresetan ezarpen prozesuak bultzatzen dituzten proiektuetan.

PROIEKTUAK HASTEKO ETA EXEKUTATZEKO EPEA:

Diruz lagundutako jarduerak diru-laguntza eskaera aurkeztu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan, eta 2020ko maiatzaren 13rako bukatu behar dira.

ESKAERAK AURKEZTEKO EPA ETA TOKIA:

Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskera inprimakiak eskuragarri egongo dira Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreko Departamentuaren web orrian, <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/dirulaguntzak>.

Eskaerak aurkezteko epea deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko da eta **2019ko apirilaren 11an**, eguerdiko 12:00etan bukatuko da.